

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EAE-KO TOKI ERAKUNDEEN KONTUEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2019**

### **EUSKAL TOKI ERAKUNDEEK FINANTZA EGOERA OSASUNTSUA DUTE: ZORPETZEAK BEHERA EGIN DU**

**Epaitegi honi kontuei buruzko dokumentazioa igortzeko duten obligazioa maila handian betetzen dela azpimarratu behar da.**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi du Euskadiko Toki Erakundeen 2019ko ekitaldiko Kontuei buruzko txostena.

Txostenak 2019an EAEn zeuden 252 udalen eta udalaz gaindiko 62 erakundeen (partzuergo, mankomunitate, kuadrilla eta partzoneria) kontu orokorrak aztertu ditu. Honela, bada, aztertutako udal eta udalaz gaindiko erakundeek antolamenduan 81 erakunde autonomo, 99 udal sozietate publiko eta 4 enpresa erakunde publiko besarkatzen dituzte. Eta, gainera, 22 fundaziotan esku hartzen dute.

Epaitegi honi kontuei buruzko dokumentazioa igortzeko duten obligazioa maila handian betetzen dela azpimarratu behar da. 12 udalek eta udalaz gaindiko 8 erakundek soilik urratu dute obligazio hau. Ez da akatsik azaleratu 39 udaletan eta udalaz gaindiko 12 erakundetan.

HKEEk atzerapenak izan direla ikusi du urteko aurrekontua onestean (109 udaletan eta udalaz gaindiko 21 erakundetan); aurrekontua kitzatzean (42 udaletan eta udalaz gaindiko 11 erakundetan) eta kontu orokorra onartzean (98 udaletan eta udalaz gaindiko 17 erakundetan).

14 udalek eta udalaz gaindiko 5 erakundek aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu zituzten. Ez dago jasoia Kontu Orokorra onartu denik 9 udaletan eta udalaz gaindiko 8 erakundetan.

HKEEk igorritako kontu orokorren eduki formala balio-neurtu du eta informatzeko betebeharrari dagokionez, legeria zein mailatan bete den egiaztatu du. Gainera, aurrekontuko likidazioek, balantzeek eta galera-irabazien kontuek ezargarrria den araudiak agintzen duen informazio guztia besarkatzen dutela eta agiri horiek elkarrekiko koherente direla egiaztatu du.

**Kontuen edukiari** dagokionez, honako hauek dira akats ohikoenak: ez jasotzea bankuko oharrak edo ziurtagiriak eta kontziliazioak (42 udal eta udalaz gaindiko 11 erakunde), aurrekontu- eta kontabilitate-emaizten kontziliazio-egoera (22 udal eta udalaz gaindiko 7 erakunde), ondare garbiaren aldaketen egoera-orria (19 udal eta udalaz gaindiko 6 erakunde) edo diruzaintza-kontua (19 udal eta udalaz gaindiko 3 erakunde).

**Kontu Orokorrari** dagokionez, akatsik ohikoena da balantzean edo ekonomia- eta ondare-emaizten kontuan ibilgetuko amortizazioak ez txertatzea (67 udaletan eta udalaz gaindiko 15 erakundetan).

Akats hauek batik bat 5.000 biztanletik beherako udaletan gertatzen dira.

### **TOKIKO SEKTOREAREN FINANTZA EGOERA**

2017ko abenduaren 31n, 3 udalek eta udalaz gaindiko erakunde 1ek diruzaintza geldikin negatiboa zuten (defizita) eta 2019ko abenduaren 31n finantzatu gabe daukate.

Euskal **udalen autonomia fiskalak** (sarrera guztien gainean zerga zuzenek, zeharkakoek, tasek eta bestelako sarrerek eragindako diru-sarrerak) 2019an % 34,67 egin du. Biztanleko gastuak batez beste 1.424 euro egin du.

Udalei dagokienez, **biztanleko batez besteko zorpetzeak** behera egin du 2019ko ekitaldian eta **biztanleko 462** euro izan da. Udalaz gaindiko erakundeena, berriz, biztanleko 137 euro izan da.

.